

BASKEPENSIONES BANAKAKO BGAE

BASKEPENSIONES 2026KO HORIZONTEA PLANA

INBERTSIO PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA

2022ko urria

I. PRINTZIPIO OROKORRAK

Inbertsioak aukeratzean, kontuan hartuko dira estatutuak, araudiak eta indarrean dauden lege xedapenak.

Baskepensiones Banakako BGAEren aktiboak bazkide arrunten eta onuradunen interesari soilik begiratuta inbertituko dira, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) merkatu antolatuetan nagusiki.

Inbertsioen kudeaketa beharreko kualifikazioa eta lan eskarmentua duten pertsonen esku utziko da.

Aktiboak irizpide jakin batzuen arabera inbertituko dira, hain zuzen, segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, sakabanaketa, diru kongruentzia eta epeak kontuan izanik. Aktiboek behar adinako dibertsifikazioa izango dute, aktibo batekiko, jaulkitzaile batekiko edo enpresa talde batekiko gehiegizko mendekotasuna saihesteko, eta kontrako alderdiaren arriskua dibertsifikatzeko arrazoizko politika bati jarraituko zaio beti.

Baskepensiones Banakako BGAEk bere inbertsioen xede diren ondasunen eta eskubideen gaineko titulartasuna edukiko du, eta horiek askatasunez erabili ahal izango ditu.

II. INBERTSIO PROFILA

Erakundea planetan banatuta dago. Plan bakoitzak bere inbertsio profila du, Gobernu Batzordeak alda dezakeena.

Baskepensiones 2026ko Horizontea Planak dagozkion aktiboetan inbertituko du bere ondarea, ekarpenak hasierako merkaturatze aldian (2022ko azaroaren 17tik 2023ko otsailaren 8ra bitartean) egiten dituzten eta ekarpenak jasotzeko aldia amaitu arte (2026ko abenduaren 1a) mantentzen dituzten bazkideei eskainitako bermatu gabeko errentagarritasunaren helburua betetze aldera.

III. GEI POLITIKA INBERTSIOAN

Baskepensiones Banakako BGAEren arabera, gizarte-, ingurumen- eta gobernu korporatiboaren arloko jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen die erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzerako etekinak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAEk jardunbide horiek kontuan izatea inbertsioak egiteko orduan, bazkideentzat lortzen diren onuren kalitatea areagotze aldera.

BGAEren inbertsio arduratsuen irizpideak orokorrean –batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan– onartuta dauden nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira. Testuinguru horretan, BGAEk egiten dituen inbertsioen xede diren erakundeek beren jarduera esparruetan honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea lortu nahi du:

- Giza Eskubideak errespetatzea.
- Ingurumena zaintzea.
- Gobernu onaren politikak egitea.
- Jardunbide egokiak zerga arloan.

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du, kontuan izanik gizarte erantzukizunaren ikuspegitik eginiko inbertsioari buruzko informazio hornitzaileek jakinarazitako edota munduko erreferentziazko funts handiek adostutako kanpo uzteak, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, betiere BGAEn irizpideek erreferentziazko funts horien irizpideekin duten antza edo bat-etortzea kontuan hartuta.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, inbertsio kolektiboko erakundeen (IKE) bidezko inbertsioan, BGAek gizarteaz arduratutako inbertsioaren politikari buruzko informazioa –erakunde kudeatzailearena– inbertsioa aztertzeko prozesuan modu kualitatiboan sartuko du.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzeko, BGAek aldian-aldian aztertuko du ea inbertsio zorroek lehenago aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

IV. INBERTSIORAKO EGOKIAK DIREN AKTIBOEN DESKRIBAPENA

Errenta Finkoko inbertsioak zuzenean (jaulkipenen bidez) edo zeharka (IKEen bitartez) gauzatuko dira. Errenta Finkoko inbertsioak izaera publikoko eta pribatukoak izango dira, kaudimen aitortua duten jaulkitzaileenak, gehienez ere eurotan. Errenta Finkoko aktiboei dagokienez, aktiboen banaketa estrategikoa egingo da, Erakundearen konpromisoen izaerarekiko eta iraupenarekiko koherentzia mantenduz.

Era berean, kreditu erakundeetako gordailuetan –agerikoetan zein epekakoetan– egindako inbertsioa bereizten da Errenta Finkoko inbertsioen artean.

Errenta Aldakorreko inbertsioak IKEen akzioen eta partizipazioen bidez gauzatuko dira. Era berean, Errenta Aldakorreko inbertsioaren muga, garatzeko bidean dagoen herrialdeei lotutako Errenta Aldakorrean inbertitzeko aukera dago.

Aldez aurretik Erakundearen Gobernu Batzordearen baimena lortuta, Errenta Aldakorraren eta Errenta Finkoaren alternatiba diren aktiboetan inbertitzea aurreikusten da, batez ere honako hauetan: Hedge-Funds, Arrisku Kapitaleko Funtsak eta Higiezinaren Sektoreko Funtsak, beste aukera batzuk alde batera utzi gabe.

Erakundeak deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza tresna deribatuak baliatu ahal izango ditu, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko. Era berean, Erakundeak deribatuen merkatu antolatuetan kontratatu ez diren finantza tresna deribatuak inbertitu ahal izango du, estalduraren helburu bat betetzeko edo errentagarritasun maila jakin bat lortzea helburu duen kudeaketaren markoan. Ez da aurretik mugatzen azpikoaren izaera; honako hauen gainekoak izan daitezke: interes tasak, kreditua, dibisak, errenta aldakorra, egiturak eta abar.

Erakundearen zorroko tresna deribatu baten erabilera dagokion azpikoaren izaeraren arabera esleituko da.

Erakundeak Deribatuekin eta Tresna Egituratuekin Eragiketak egiteko Barne Eskuliburua dauka.

Ez da baztertzeko merkatu arautuetan negoziatzeko onartu ez diren Errenta Finkoko eta Errenta Aldakorreko baloreetan inbertitzea; betiere, baldintza hauek betetzen badituzte: sozietate egoitza ELGAko herrialde batean duten entitateek jaulkiak izatea; transmisio librea mugaturik ez izatea; euren finantza egoerak ikuskatuta egotea; eta azkenik, inbertsioaren unean, auditoreak erreferentziako azken ekitaldiari oniritzia emanda izatea.

Oro har, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardura jakin batzuen egikaritzeko modua arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan zerrendatutako aktibo guztiak joko dira inbertsiorako egokitzat.

Eratuko den zorroa Europar Batasuneko estatu kideek, autonomia erkidegoek, toki erakundeek jaulkiak diren edo beren abala duten errenta finkoko tituluek osatuko dute, batez ere Espainiako erakundearen hipoteka zedulak eta likidezia dutenek, gehienez % 25 beste errenta finko pribatu batean dutenak baztertu gabe, moneta merkatuko gordailuak eta tresnak barne.

V. INBERTSIOEI LOTUTAKO ARRISKUAK

Jarraian aipatutako arrisku bakoitzeko, Erakundeak behar bezalako jarraipena eta bilakaeraren kontrola egiteko berariazko prozedurak dauzka. Kasu jakin batzuetan, prozedurak burutzeko mugak ezarriko dira.

Erakundeak Errenta Finkoko aktiboetan inbertitzen du, hain zuzen, beren merkatu balioa interes tasen bilakaeraren arabera fluktuazioak dituzten aktiboetan. Merkatu prezioaren aldaketek epe laburreko aktiboetan izaten duten eragina txikia da eta handia, epe luzeko aktiboetan. Erakundeak "iraupen aldatua" bezalako kontzeptuaren bidez neurtzen du eragin hori.

Jaulkitzaile pribatuen Errenta Finkoko jaulkipenek, oro har, publikoenek baino kreditu arrisku handiagoa izaten dute; hori dela eta, Errenta Finko pribatuko jaulkipenen kreditu kalifikazioa zehazten da. Jaulkipenen bat kalifikatu ez bada, jaulkitzailearen kreditu kalifikazioa izango da kontuan.

Errenta Aldakorrean inbertituz gero, Erakundearen errentagarritasuna inbertsio horien merkatuen aldakortasunaren arabera izango da; hori dela eta, merkatu arrisku handia izango du.

Inbertsio alternatiboek arrisku osagarriak izaten dituzte, besteak beste: prezioa sortzeko orduan gardentasunik eza; likidezia arriskua; palanka efektu finantzarioaren ondoriozko merkatu arrisku gehigarria; araudi arriskua, eragiketa arriskua; balorazio arriskua; eta inbertsioak egiteko aukeratutako IKEen kontrol sistemak ahulak direlako aktiboak lapurtzeko arriskuaren ondoriozko iruzurraren arriskua. Arrisku horiek murrizteko, horrelako aktiboetan inbertitzeko muga bat ezartzen da.

Tresna deribatuetan inbertitzeak arrisku osagarriak ekartzen dizkie eskurako inbertsioei, loturik duten palanka efektua dela eta; ondorioz, tresna horiek bereziki nabarituak dituzte azpikoaren prezioan egon daitezken aldaketak. Merkatu antolatuetan kontratatu ez diren tresna deribatuetan inbertitzeak arrisku osagarriak ditu; adibidez, gerta daiteke kontrako alderdiak kontratua ez betetzea, eragiketen emaitza bermatuko duen alderdien arteko konpentsazio ganberarik ez dagoelako. Esan bezala, Erakundeak Deribatuekin eta Tresna Egituratuekin Eragiketak egiteko Barne Eskuliburua dauka.

Kotizatu Gabeko Aktiboetan inbertitzeak, **halaber, inbertsio batzuen likidezia galtzea ekar ditzake**. Gainera, arriskua egon daiteke aktiboaren balioa zenbatesteko orduan, merkatuak balio hori zuzenean finkatzen ez duelako. Arrisku hori murrizteko, horrelako aktiboetan inbertitzeko muga bat ezartzen da.

Euroaz beste dibisetan dauden aktiboetan inbertitzeak truke tasaren fluktuazioen ondoriozko arriskua dakar. Arrisku hori murrizteko, euroaz beste dibisetan dauden aktiboetan inbertitzeko muga bat ezartzen da.

VI. INBERTSIOEI LOTUTAKO ARRISKUAK NEURTZEKO METODOAK

Indarrean dagoen araudiak jada ezarri ditu hainbat muga, inbertsioak egiteko; hala ere, kasu batzuetan, Baskepensiones Banakako BGAEk jarraian azaltzen diren muga propio zorrotzagoak ezartzen ditu.

Errenta Finkoa:

Erakundeak aldizkako jarraipena egingo du, Errenta Finkoko inbertsioen iraupena kontrolatzeko. Hala ere, ez ditu parametro horren gaineko mugak ezarriko, eta parametroa era dinamikoan ezarriko da Planerako, talde kudeatzaileak merkatuari buruz duen ikuspegiaren arabera.

Errenta Finkoko inbertsioak kaudimen aitortuko jaulkitzaileen aktiboetan zentratuko dira.

Inbertsioa egiteko unean, jaulkitzaile pribatuen Errenta Finkoko inbertsioen % 95ek nazioarteko mailan ezaguna den agentzia batek (gutxienez) emandako kreditu kalifikazioa izango dute. Era berean, inbertsioa egiteko orduan, ondarearen % 25 baino ez da inbertituko, aldi berean agentzia guztien arabera, Espainiarekin konparatuta, hiru maila beheagoko kreditu kalifikazioa duten jaulkipenetan. Jaulkipenen bat kalifikatu ez bada, jaulkitzailearen kreditu kalifikazioa izango da kontuan.

Errenta Finko publikoko inbertsioetan ez da ezartzen mugarik Europar Batasuneko estatu kide batek, autonomia erkidego batek, toki erakunde batek eta Espainia kide duten nazioarteko erakundeek jaulki dituzten edo abala eman dieten baloreei dagokienez.

Era berean, muga horiek kontuan izango dira kotizatu gabeko OTC gordailu eta deribatuak kontratatzean, eta aintzat hartuko dira, halaber, kontrako alderdien kreditu kalifikazioak; hori dela eta, eragiketa horietan, aipatu mugak jaulkitzaileen zein kontrako alderdien kasuetan batera aplikatuko dira.

Errenta Aldakorra:

Arrisku hori murrizteko, Planaren Errenta Aldakorrarekiko esposizioari mugak ezartzen dizkio Erakundeak.

Errenta Aldakorreko inbertsioek ez dituzte Planaren ondarearen gainean ezarritako mugak gaindituko. Muga horietan, zuzeneko zein zeharkako inbertsioak zenbatuko dira, hau da, IKEen bidezkoak eta inbertsio alternatiboak.

Errenta Aldakorraren apartatua, garatzeko bidean dagoen herrialdeei lotutako Errenta Aldakorrean egindako inbertsioak ere badaude; azken horiek ez dute gaindituko Planaren ondarearen % 5. Muga horrek barnean hartuko ditu merkatu horietan bakarrik inbertitzeko bokazioa duten IKEetan egindako inbertsioak.

Inbertsio alternatiboak:

Aktibo alternatiboetan egindako inbertsioek, kontratatze orduan, ez dute Planaren ondarearen % 3 gaindituko.

Tresna deribatuak:

Errenta Aldakorrean jasotako aktiboei esposizio mugak ezartzen zaizkie, tresna deribatuen bidez, esposizio zeinuaren arabera:

1. Zeinua negatiboa bada, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio garbiak (hau da, eskurako inbertsioa kontuan hartuta) ezin du posizio labur bat eman. Bestela esanda, tresna deribatuekin egiten den eragiketak ezin du eskurako inbertsioa gainditu.
2. Tresna deribatuekin egiten den eragiketaren zeinua positiboa bada, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio osoak (hau da, eskurako inbertsioa batuz lortutakoa) ezin du Errenta Aldakorrerako ezarritako ondare muga gainditu.

Kotizatu Gabeko Aktiboak:

Kotizatu gabeko aktiboetan egiten den inbertsioak ez du gaindituko Planaren ondarearen % 20 edo legediak dagokion unean ezarritako muga, % 20 hori baino handiagoa bada.

Euroaz beste dibisetan dauden aktiboak:

Dibisa arriskuan, esposizio osoak ez du Planaren ondarearen % 30 gaindituko. Plan horren inbertsio egitura indarrean dagoen legedia eta errentagarritasun helburu zehatza betetzeko diseinatu da. Arriskuen honako jarraipen hauek egingo dira:

Arrisku mota	Neurtzeko metodoa	Kontrol prozedurak
Erakundearen arrisku globala	<ul style="list-style-type: none"> • Ondarearen zati alikuotaren balioespenaren aldakortasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Aktiboak dibertsifikatzea • Aktibo motaren araberako mugak • Aktiboen kalitateari buruzko eskakizunak
Kreditu arriskua	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta Finkoko zorroaren batez besteko kreditu kalifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Jaulkitzaileak dibertsifikatzea • Kreditu kalifikazioari buruzko eskakizuna

Merkatu arriskua	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta aldakorreko inbertsioaren bilakaera konparatua, merkatu indizeak (Ibex 35 eta Eurostxx 50) kontuan hartuta 	<ul style="list-style-type: none"> • Desbideraketen azterketa, merkatu indizeei dagokienez • Errenta aldakorrean egindako gehieneko inbertsio ehunekoaren kudeaketa aktiboa
Interes tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> • Errenta finkoko zorroaren gainbalio edo minusbalioaren bilakaera • Errenta finkoko zorroaren iraupena eta sentsibilitatea aztertzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Interes tasen kurbek duten bilakaerarekin konparatzea • <i>Spread</i> edo kreditu diferentzialen aldaketa garrantzitsuenen analisisa
Likidezia arriskua	<ul style="list-style-type: none"> • Zehaztutako hileko eta urteko fluxuak (mugarik gabe), hilero eguneratu ahal direnak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gutxienez ondarearen % 2aren ondoriozko beharretarako estaldura gehigarria
Truke tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> • Euro-dibisa gurutzaketaren ondoriozko aldaketaren azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Egon daitezkeen estaldura mailak ezartzea, dibisaren <i>forward</i> eragiketen bidez.
OTC deribatuak <ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioa • Estaldura 	<ul style="list-style-type: none"> • Ordezkatzen duen eskurako inbertsioaren hasierako maila definitzea • Estaldurari dagokionez, espero den eraginkortasuna aldeztetik zehaztea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ezarritako muga egunero kontrolatzea • Espero den eraginkortasuna eta korrelazioa hilean behin neurtzea
OTC ez diren deribatuak estaldurarako	<ul style="list-style-type: none"> • Espero den eraginkortasuna aldeztetik zehaztea 	<ul style="list-style-type: none"> • Eraginkortasuna hilean behin neurtzea eta kontrako alderdiaren balioespenarekin konparatzea
Beste arrisku batzuk	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioaren ezaugarriak, erregulazio maila eta balioespen independentea egin ahal izatea 	<ul style="list-style-type: none"> • Inbertsioak dibertsifikatzea • Pisua murriztea • Berariazko jarraipena

Edonola ere, dagokion aktiboa eskuratu ondoren *rating* horretan geroago gerta daitezkeen aldaketek ez dute nahitaz ekarriko saldu behar izatea, merkatuko baldintzen arabera gomendagarria ez bada.

VII. ARRISKUAK KONTROLATZEKO PROZEDURAK

Aurreko epigrafean ezarritako mugen jarraipena eta kontrolak egunero egingo dira. Errenta Finkorako eta Aktibo Alternatiboetarako ezarritako mugak hilean behin kontrolatuko direla ezartzen da.

Ezarritako mugetako bat gainditzen bada, Erakundeak ahalik eta lasterren erregularizatuko du egoera eta Erakundearen presidentea informatuko du, Gobernu Batzordearen hurrengo bilkuran horren berri eman dezan, baldin eta desbiderapenak bere muga % 5ean gainditzen badu. Aurrekoa gorabehera, Gobernu Batzordeak gainditze hori merkatuko egoeraren ondorioa dela jotzen badu, partedunen onerako, Gobernu Batzordeak gainditzea baimentzeko erabakia hartu ahal izango du, egoera aldatzen ez den bitartean.

VIII. PLANAREN ARRISKU PROFILA

Baskepensiones 2026ko Horizontea Planak, bermatu gabeko errentagarritasunaren helburua betetzeko, honako hauek jaulki duten edo abala eman dioten zorrean inbertituko du: Europar Batasuneko estatu kideek, autonomia erkidegoek, toki erakundeek, batez ere Espainiako erakundeen hipoteka zedulek eta likideziak, gehienez % 25 beste errenta finko pribatu batean dutenak baztertu gabe, moneta merkatuko gordailuak eta tresnak barne.

Planeko inbertsioen xede diren aktiboak eta zorroan errentagarritasuna lortzeko ezarritako aldian egoteko asmoa kontuan hartuta, bere arrisku profila baxua dela esan daiteke.

IX. ESPERO DEN ERRENTAGARRITASUNAREN URTEKO HELBURUA

Baskepensiones 2026ko Horizontea Planaren bermatu gabeko errentagarritasun helburua hauxe da: erabakitako aldiaren amaieran (2026ko abenduaren 1ean), partizipazioak aldi horren hasieran (2023ko otsailaren 8an) izango duen balioaren gainean % 7,84ko balio igoera (UTB: % 2) lortzeko inbertsio politika aplikatu ondoren lortuko dena.